



Zumaiko Udala



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

Zumaiko Udalean euskararen erabilera normalizatzeko plana

VI. plangintzaldia (2018-2022)

LABURPENA

1. SARRERA

Euskara Zerbitzuak eta UEMAk elkarlanean egindako txostena.

2. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANAREN TESTUINGURUA

Dekretu batek behartzen ditu administrazio publikoak erabilera planak egitera.

5 urteko aldiak bereizten dira.

3. METODOLOGIA ETA PROZEDURA

Azken urteotako berrikuntzak eta baliabideak erabili dira plana egiteko: Euskalit erakundearekin landutako Bikain metodologia, Siadecok diseinatutako galdetegia eta datu-basea, Eusko Jaurlaritzak prestatu duen Hizketa aplikazioa, etab.

Hala ere, funtsezkoa Udalean bertan egindako lana izan da: 57 inkesta betetzea, 10 elkarrizketa egitea, erregistroetan lagin batzuk aztertzea... Txostena ez da tramite soila izango, 5 urterako oinarriak jarriko ditu, lanean jarraitu ahal izateko.

4. DIAGNOSTIKOA

6 esparru bereizi dira eta ahal den heinean zenbakitara ekarri da egoera, hurrengo puntuan horien inguruko helburuak zehazteko. Ehuneko orokorrak beste batzuekin osatu dira eta xehetasunak idatziz jaso ere bai.



AMIA matrizea

Diagnostikoa Zumaia Udaleko azterketa zehatza egin ostean, AMIA matrizean jaso dira erakundearen jardunaren ahulguneak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak. Zati honen helburua da dagokion horrek begirada batean ikustea Udalean euskarak lan tresna bezala duen lekua.

AHULGUNEAK	MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none">- Txostenak euskaraz sortzeko zailtasunak, jatorrizko testuak eta eredu berriak gaztelaniaz bakarrik daudelako.- Langile batzuek gaztelaniarako joera dute ahoz (lankideen arteko harremanetan).- Aldi baterako langile batzuek euskara maila apala erakutsi dute, zegokien agiria eduki arren (Udaltzaingoan).- Zenbaitetan erosoagoa da "defektuz" dena ele bitan egitea, bereizten aritu gabe.- Hizkuntza irizpideak ez daude erabat txertatuta, eta zenbaitetan interpretazioan zalantzak sor daitezke, esaterako ele bitan noiz eta nola egin zehaztu behar denean.	<ul style="list-style-type: none">- Lege berriek (kontratuak, gardentasuna...) ereduak goitik behera aldatzea eskatu dute, eta zalantzak sortzen dira irizpideetan: zer egin daitekeen euskaraz, etab.- Hauteskundeak egiten diren bakoitzean arriskua dago euskaraz ez dakiten ordezkariak sartzeko; ez dago bermerik.- Turismoak eta bisitari kopurua handitzeak irizpide batzuetan zalantzak edo atzerapausoak ekar ditzake, argitu eta zehazten ez badira.
INDARGUNEAK	AUKERAK
<ul style="list-style-type: none">- Hizkuntza paisaian euskara da nagusi eraikin publikoetan, eta herrian ere lehenetsua ematen zaio beti.- Euskara Zerbitzu dinamikoa du Zumaia Udalak, ekimen eta esperientzia berrietan parte hartzeko prest dagoena.- Zinegotziek maila ona dute, oro har, eta aukera ematen dute lan hizkuntza euskara izan dadin.- Langile askok egin dute zegokien maila edo handiagoa eskuratzeko ikastaroa (gehienek 4. HE).- Udaleko langile batzuek jarrera proaktiboa dute eta beren gain hartzen dituzte irizpideak betearazteko lanak.	<ul style="list-style-type: none">- UEMAren lankidetzak eta mankomunitateko udalen elkarlana.- Udal Lege berriak ate berriak ireki ditzake.- Bikain deialdian parte hartu eta ziurtagiria eskuratzeko planarekiko atxikimendua handitu dezake (2019).- Erakundeek hartu duten konpromisoa euskara indartzeko: hitzarmenak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin, plangintzaldi berrian landuko diren planak...- Euskaraldiak balio lezake herritarrak aktibatu eta administrazioetan ere eragiteko.



5. ERABILERA PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK

Ezkerreko zutabeetan 4. puntuari zehaztutako ehunekoak jarri ditugu eta eskuinekoetan, berdez, 5 urte barrurako aurreikusitakoak (adierazle bakoitzean X puntu gora egitea).

ARDATZAK, ELEMENTUAK ETA ADIERAZLEAK	HASIERAN		AURREIKUSITAKOAK	
	EUSKARAZ	ELEBITAN	EUSKARAZ	ELEBITAN
ZERBITZU HIZKUNTZA	Euskararen presentzia eta erabilera indartzea herritarrekiko ahozko eta idatzizko harremanetan, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.			
ERAKUNDEAREN IRUDIA	Udal instalazioetan eta jendaurreko guzietan jarrera proaktiboa erakustea herritarrei euskara erabiltzera gonbidatzeko (Txantxan-gorria eta bestelako identifikagarriak erabiltza...).			
Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak	Jendaurreko errotulazioan eta ikus-entzunezkoetan euskararen ehunekoak gora egitea.			
Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak	90	10	95	5
Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak	Marketinean, publizitatean eta jendaurreko ekitaldi guztietan euskararen presentziaren eta erabileraren ehunekoak gora egitea.			
Argitalpenak, iragarkiak, publizitate kanpainak, prentsa oharra eta paper gauzak.	30	70	60	40
Jendaurreko ekitaldiak	74,1		80	
Herritarrei begira antolatutako ikastaro eta jarduerak	70		80	
Ingurune digitala	Webgunean eta sare sozialetan euskarazko edukien ehunekoak gora egitea.			
Webgune eta sare sozialen edukia	10	90	25	75
HERRITARREKIKO HARREMANAK	Zerbitzuetan euskararen erabilera indartzea euskaraz egiteko hautua egin duen herritarra euskaraz artatua izan dadin.			
Herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan.	Herritarrekiko harremanetarako idazkietan euskararen ehunekoak gora egitea.			
Idatzizko harremanak	34,8	55,7	50	50
Euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzunak.	73,2	19,3	100	



Herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua emateko orduan.	Herritarrekiko harremanetan euskarazko ahozko arretaren ehunekoak gora egitea.			
Harrera	93,2		100	
Ahozko harremanak telefonoz, online eta aurrez aurre	77,5		80	
Euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzunak	94,9		100	
LAN HIZKUNTZA	Euskararen erabilera areagotzea lan harremanetan.			
BARNE HARREMANAK	Komunikazioan eta lan-tresnetan euskararen erabileraren ehunekoak gora egitea.			
Lanari lotutako hizkuntza paisaia	Bulegoko materialak, paper gauzak, kafe makinak etab. euskaraz egotea.			
Lanari lotutako hizkuntza paisaia	80	10	90	10
Barne harremanak idatziz	Idatzizko komunikazioetan euskararen erabilera areagotzea.			
Informaziorako edota komunikaziorako tresnak	100		100	
Lan bileretako idatziak	81,7	14,4	100	
Erakundearen barne harremanetarako idatziak	82,5	11,9	100	
Barne harremanak ahoz	Ahozko komunikazioetan euskararen erabilera areagotzea.			
Erakundearen barruko lan bileretako ahozkoak	90,2		100	
Erakundearen barruko telefonozko harremanak	80		100	
Erakundearen barruko aurrez aurreko harremanak	81,1		100	
Baliabide informatikoak	Euskarri informatikoen euskarazko bertsioa edukitzea eta horiek erabiltzen direla sustatzea			
Euskarazko bertsioen instalazio kopurua	95		100	
Euskarazko bertsioen erabilera	80,2		100	
PERTSONEN KUDEAKETA	Pertsonen kudeaketan eta prestakuntzan euskararen erabilera indartzea.			
Pertsonen kudeaketa	Euskararen ahozko eta idatzizko erabilera areagotzea giza baliabideen kudeaketan.			
Pertsonen kudeaketa	80	10	100	
Laneko prestakuntza	Euskarazko prestakuntzaren eskaintza areagotzea eta eskaera sustatzea.			
Laneko prestakuntza	23,4		50	
Ikastaroen kudeaketa	85	15	90	10



KANPO HARREMANAK	Euskararen erabilera areagotzea kanpoko erakundeekiko harremanetan.			
Administrazioa	Euskararen erabilera areagotzea herri administrazioekiko harremanetan.			
Administrazioekiko idatzizko harremanak	67,1	30,6	75	25
Administrazioekiko ahozko harremanak	87,3		90	
Erakunde pribatuak: finantza entitateak, erakunde kolaboratzaileak, etab.	Euskararen erabilera areagotzea hornitzaileekiko harremanetan.			
Erakunde pribatuekiko idatzizko harremanak	59,3	26,9	70	30
Erakunde pribatuekiko ahozko harremanak	75,9		85	
Bestelako harremanak: aliatuak, erakunde kolaboratzaileak, etab.	Euskararen erabilera areagotzea gainerako harremanetan.			
Beste entitateekiko idatzizko harremanak	70	15	80	20
Beste entitateekiko ahozko harremanak	85		90	
KUDEAKETA SISTEMA	Euskararen kudeaketa aurreratua bermatzea.			
PERTSONAK: Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea	Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea.			
Guztira egiaztatutako langileen hizkuntza eskakizunak	94,4		100	
Erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasuna	92,3		100	
Langileen eta erakunde ordezkarien balorazioa erabilera planarekiko	93		100	
Langile eta erakunde ordezkarien parte-hartze aktiboa erabilera planeko ekimenetan	90		100	
ESTRATEGIA: Hizkuntzen kudeaketa kudeaketa sistema orokorrean integratzea	Euskararen kudeaketa erakundearen kudeaketa orokorrean txertatzea.			
Kudeaketa planaren jarraipena zuzendaritza batzordeak egitea (0 - % 100)	60		100	
Erakundearen kudeaketan euskararen kudeaketak duen txertatze maila (0 - % 100)	75		100	
Euskara sortze hizkuntza (0 - % 100)	76		100	
Dokumentuen estandarizazioa (0 - % 100)	80		100	
HERRITARRAK ETA ZERBITZUA: Hizkuntzen kudeaketa herritarrekiko harremanen kudeaketan eta zerbitzuen garapenaren kudeaketan integratzea	Erakundeko zerbitzuen prozesuetan hizkuntza txertatzea.			
Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideen betetze maila (0 - % 100)	75		100	



Zumaiko Udala



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

7. HIZKUNTZA IRIZPIDEAK 2018-2022

UEMAk Eusko Jaurlaritzarekin adostu dituenak hartu dira oinarritzat, behar diren egokitzapenak eginda.

8. ADMINISTRAZIO ATALEN SAILKAPENA

Zumaiko Udalaren sailak tipologiaren arabera bereizi dira, dekretuak xedatutakoa aintzat hartuta, eta denak euskarazko atal izendatu dira.

I. ERANSKINA

2018ko lanpostu zerrenden datu orokorrak ekarri dira taula batera. Horretarako aukera ematen duten lanpostuen %100ean jarrita daude derrigortasun datak, hizkuntza eskakizunak hasieratik egiaztatzeke betebeharrak. Betetze maila oso altua du Zumaiko Udalak, %94,4koa; hiru lanpostu besterik ez dira dagokien maila egiaztatu ez dutenak (maila bat beheragoko eskakizunean daude hirurak).

OHARRA:

Planaren proposamena urriaren 18an bidali genuen Eusko Jaurlaritzaren Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzara eta urriaren 30ean jaso zuen Udalak **aldeko txostena**, indargune hauek azpimarratuta:

- Elebitasuna bermatzeke harago doa.
- Hizkuntza gaitasuna bermatuta dago.
- Txertatuta dauka hizkuntza-politikari dagokion zeharkako ikuspegia bere jardunean.
- Langile eta erakunde-ordezkarien erabilera planarekiko atxikimendua eta parte-hartze aktiboa sustatzen du.
- Administrazio atal guztiak euskarazko atal izendatu ditu.

Hori guztia kontuan hartuta, **HPSk begi onez ikusten du Zumaiko Udalak egin duen euskararen erabilera plan proposamena.**